


Pil @ billean


1998ko Urria

11. zenbakia



KB





Bizikleta gustatzen bazaizu!

BICIPRECISIÓN IGARTUA

Espainia eta Portugalerako inportatzaile eta banatzaile bakarra

Iñigo Igartua



500.m², ALMAZEN eta DENDA BERRIA

BIZIKLETAK :

**KARRETERAKUAK, MTB, UMEENTZAT, ESTATIKOAK, TRIAL, TANDEM eta
ZIKLO-KROSSerakoak.**

Era guztietako ERROPAK, OINETAKO edo ZAPATILAK

Era guztietako KONPONKETA eta ARREGLOAK

BIZIKLETAK GARBITU eta ENGRASE ZERBITZUA

Zubieta kalea 5-7

Tfnoa. 943 - 76 11 21 / Faxe 76 06 75

Mobila 989 76 11 21

posta kutxa 9

20570 BERGARA

Gipuzkoa

GOL S.A. industriak

Tornileria-estanzioa

eta extrusioa hotzean

Tfnoa. 943 - 75 21 00

FAX 943-751712

20590 SORALUZE

PIL-PILEAN, GUZTION ALDIZKARIA

Azken urteetan herri aldizkarien igoera nabaria izan da. Arrasaten lehen aldizkaria sortu zenetik, herri askok eta askok hura ikusi eta berdina egitea erabaki zuten. Pil-Pilean duela bi urte sortu zen Soraluzen zegoen hut-sune hori bete asmoz. Gure helburua, batetik, euskararen alde egitea eta, bestetik, soraluzetar guztiei bertan parte hartzeko aukera ematea izan da; aldizkaria herritar guztiena izatea alegia.

Baina azken helburu hau lortzea ez da dirudien bezain erraza. Aldizkari honek herritar, talde zein erakunde guztien isla izatea nahi du, eta benetan, borondate onez ari gara hori lortu asmoz. Egia da aldizkari honek zenbait akats izan dituela baina horiek zuzentzen ahalegindu behar gara. Izan ere, aldizkari gaztea da, bi urte besterik ez ditu eta guk ere geure akatsetatik ikasi behar dugu.

Bigarren helburu hori lortu asmoz aurrera jarraituko dugu lanean, aldizkaria herritar guztiona baita eta ez batzuen edo besteena. Guztiek dute bertan parte hartzeko aukera, guztiek dute, esate baterako, gutunetan idazteko eta euren iritzia plazaratzeko aukera. Eta aukera hori hor dago eta hor jarraituko du; horrela bakarrik lortuko baitugu aldizkari hau aurrera eramatea.

AURKIBIDEA

Editoriala.....	1
Gutuna.....	2
Ipuina.....	3
Gaurkotasuna.....	4
Kale Inkesta.....	5
Gizartea.....	6
Kultura.....	7-8
Kirola.....	9-11
Musika	
kontuak.....	12-13
Berbak.....	14
Lehiaketa.....	15
Kronologia.....	16-17
Badator azoka.....	18
Sutondoaren	
epelean.....	19-20
Sukaldaritza.....	21
Txikitxoko.....	22-23
Horoskopoa.....	24-25
Hormatzulo.....	26
Ajenda.....	27-28

ARGITARATZAILA: Pil Pilean, 27 PK. ERREDAKZIO KONTSEILUA: *Gizarte saila:* Loiola Madera eta Sabin *Gaurkotasuna:* Aitor Gabilondo, Maite Elizburu *Kale Inkesta:* Amaia Aguirre, Aitziber Gantxegi *Kirola:* Inaki Alberdi, Juan Alberdi, Mikel Garcia. *Kultura:* Eduardo Pombar, Maite Etxeberria. *Musika Kontuak:* Pedro Deza. *Berbak:* Gurutze. *Sutondoaren Epelean:* Ubane Madera. *Hormatzulotik Begira:* Maite Etxeberria. *Kronologia:* Egoitz Unamuno, Ubane Madera. *Ipuina:* Joserra Gomez. *Lehiaketa:* Gurutze. *Txikitxoko:* Guru. *Ajenda:* Elene Alberdi. *Horoskopoa:* Gorka Prieto. ARGAZKARITZA: Gurutze eta Amaia. HIZKUNTZA ARDURADUNA: Pilpilean. PUBLIZITATEA: Ander Epelde. DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Erredakzioa. TIRADA: 1500 ale INPRIMATEGIA: K3 (Bergara) COPYRIGHT: Pil Pilean Kultur Elkarte.

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Laguntzailea:
SORALUZeko UDALA

“Pauso bat” atzerantz

Urtero bezala, oporrak igaro eta gero, polikiroldegira hurbildu nintzen eta ondoren gimnasiaorantz jo nuen. Gimnasioaren itxura benetan penagarria iruditu zitzaidan, gure polikiroldegiko gimnasioak ia gimnasia egiteko tresnarik ez zuela ikusi nuenean. Aurreko urteetan ere gutxi zituen; horregatik bere garaian, orain arte gimnasia ematen zuen Lukek tresna berriak eskatu zituen, honen beharra ikusten baitzuen. Guztion ahotan zegoen, gimnasia, prestazio aldetik oso gaizki zegoela eta denok ikusten genuen hau hobetzeko beharra. Eskakizun hau, orain dela urte t’erdi egin zuen Lukek, baina orain arte ez du inolako erantzunik jaso. Nik, pertsonalki, arazo hau salatu nahiko nuke; polikiroldegia zabaldu zutenetik bazkide naiz eta urte guzti hauetan aurrera egin beharrean, atzerantz egin dugula ikusten dut. Nik, ez dakit ziur zeinen ardura den hau, benetan ez dakit; hala eta guztiz, egoera, aipatu dudana hau da eta nire asmoa ez da errudunak aurkitzea, arazo honi irtenbide bat bilatzea baizik. Hau horrela, gaur egun nekez ikus daiteke gimnasia joaten den norbait(bere kabuz), eta hau, azken batean, herritar guztiontzat da kaltegarria, batzutan onartu nahi ez dugun arren.

Luken izena aipatu dudanez, berarekin gimnasia egiten genuen guztioi erreflexio txiki bat egitea eskatu nahi nizueke. Denok dakigu, orain Lukek, polikiroldegian gimnasia emateari utzi diola(ia guztiok ezagu-tzen ditugun arrazoiengatik) eta bere ordeztan beste bat ipini dutela. Azken urteetan askok jaso ditugu Lukek emandako gimnasia saioak; berak bazituen alde onak eta ez hain onak, baina garbi dago ia denak gustura geundela. Bera goizeko 6.30etan hasten zen lanean

eta gaueko 10etan bukatzen zuen; berak emandako klase guztietara joateko aukera ematen zigun; klaseen prezioak, zergatik ukatu, oso ekonomikoak ziren; guztion beharrak eta eskakizunak betetzen ahalegintzen zen eta makina bat gauza gehiago.

Garbi dago, Luke ez badago, polikiroldegikoek beste bat ekarri beharko dutela gimnasia emateko, baina garbi dago ere, Luken klaseak jaso ditugunok, ezin dugula ahaztu orain arte berarekin oso gustura geundela. Horregatik, berarekiko elkartasuna adierazi nahian, aurten, gimnasiako klaseetan nire izena ez ematea erabaki dut, azken finean berak eskatzen zituen tresnak denon mesederako izango baitziren. Nik ez dizuet esaten orain ematen ari diren klaseetara ez joateko, ez horixe, guzti honetaz erreflexio txiki bat egitea baizik eta pentsatzea pertsonak ezin daitezkeela ordezkatu makina hutsak izango balira bezala.

Konturatu behar gara, orain, Luke joan dela, eta bere ordeztan beste bat ekarri dutela; hurrengoan pertsona honek utziko du eta honen ordeztan beste bat ipiniko dute, baina garbi dago arazoak hor jarraituko duela, polikiroldegiko azpiegiturak txarrerantz joko duela hain zuzen ere.

Horregatik, aipatu dudana guztiak erreflexio sakon bat egitera bultzatu behar gaituela uste dut.

Iñaki Alberdi

ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

ARRAIN FRESKO-FRESKUA!!!

Tfnoa: 752440

SORALUZE

Satorrak ez du begirik dordokak bai!!!

Gaur begiak zabaldu ditudanean eta ohartu naizenean non nengo eta ze egunetan bizi naizen konturatu nok:

Bat-Udaberrixa joan eta udan girela uda pasa eta udazkenean sartuak garela.

Bi-Gauean euri tanta batzuk jausi zirela baina hala ere egunez eguzkia irten dela zeru garbi baten.

Hiru-Erropa zikina labadoran sartuta neukala eta martxan jarri behar nuela, horrela egin dot.

Lau-Alpertasuna ezin gaintitu eta berriro oheratu naizela.

Bost-Ohetik berriz jaiki, dutxa bat hartu, almortsua prestatu eta erropak sikatzen segi ondoren kafesne bat edan dotela.


Sei-Kalera urten naizela; lan batzuk egin, lagun batekin kostaldera bota, itsaso ertzean eseri eta olatuen gora behera ikusten genituen artean elkarriketa egin dugula bizitzan dakarren erasoetaz; olatuak bezelaxe datozen erasoak berriz joaten direlako eta bizitzak aurrera egiten duelako, pozak eta tristurak gaintitzen eta hauen-gandik ikasten.

Hauxe idazten doten bitartean bizi naizen alboan pasatzen den ibaia burura erakarri dut. Jaioterrian iturri, gero erreka, ibai eta azkenean itsasoa delako bere bizileku berria, ez delako hiltzen baizik eta itsaso bihurtuz naturaren ziklo borobila betetzen delako, gizadiak bezelaxe, jaixo, bizi eta heriotzeraino gizartea egin eta eragin.

Baina gizakia ahalegindu behar da barrutik sortzen duen kemen iturria ahalik eta garbien isurtzen.

Barruko iturria garbi isurtzen duenean bizitza daramalako iturria usteltzen hasia denean astiro astiro heriotza dakarrelako, nere lagun batek esaten duen bezelaxe **heriotzak hain ziur dauka bere garaipena bizitza baten abantaila ematen digula**; bururatu jata heriotza gaintitzeko era bakarra bizitzan sinestea dela gogo eta hauek euki ondoren oheratzea pentsatu dut, baina zerbait irakurri eta gero hobeto lo egiten doteenez, hasi naiz irakurtzen antzinako liburu bat eta hauxe irakurri doten ipuin edo istorioa.

Izan zen behin herri baten andra gaizto gaizto bat ustelkeriaz eta



maltzurkeriz betetako bizitza bateruan ondoren heldu zen heriotzera atzera begiratzean ekintza onik ez zeukala. Etorri ziren debruak hartu eta suzko lakura bota zuten baina zeukan aingeru zaintzalea pentsatzen hasi zen ze ekintza zuzen ein ote du andre honek Jainkoari konta diezaiodan, azkenean bururatu zitzaion zeozer eta esan zion Jainkoari: Egun baten zeukan ortutik kipula bat atera etan han zeuan andra behartsu bateri eman zion, eratzun zuen Jainkoak: -Hartu ezazu ki-

pula bera hurbildu eta oratu dezala, kipula tiratzen andrea ateratzen baduzu lakutik paradisura joan dadila, baina kipula apurtzen bada dagoen lekuan geratu beharko da. Antxixika joan zen aingeruan andereagana eta esan zion kipula emanez: - Andra! oratu zaitez eta ez askatu kipula; kontuz hasi zen tiratzen eta ia urtenda zen lakutik beste pekatarriak ohartu eta andrian gorputza oratze hasi zirenean beraiek ere urteko leku madarikatu hartatik, baina andrea gaiztoa oso gaiztoa zenez, ostikoka hasi zen denekin ohiuka esaten: - ni ateratzen naute ez zuek, kipula neria da ez zuena, hitz hauek esan zuenean kipula apurtu andria lakura jausi eta oraindik gaur sutan dago. Aingerua negarrez hasi eta urrundu zen andrea benetan txarra zela ikustean, bakoitzak atera dezala kontu honen mamia. Askotan galdetu diot nere buruari ni nolakoa naizen, nik dakit naizela zeozer bada, batzuk ezta hauxe bez. Gustatuko litzaidake jakitea zer den izatea, izatea jakitzea da edota norberak burujabetasuna edukitzea? Hala ta guztiz nik dakidanak ez dosta ezer balioko uste badut dena dakidala, egunero zerbait ikasten delako eta nire bizitzaren jabe baldin bainaiz joko erdia irabazita daukat beste erdia irabaziko dut joko ez badut erdibitzen eta nire bizitza egiazko jabeari eskeintzen baldin badotsat.

Jose Ramon

ABORTOEA EZTABAIDAN

Espanian abortu legal bat burutzeak oraindik ere arrisku penal zorrotza suposatzen du emakume nahiz berau praktikatzen duten profesionalentzat. Beronen aurka dauden lehen balizkoa haurdun dagoen emakumearen osasun fisiko nahiz sikikoa arriskuan jartzea da. Hau dela eta 1012 espediente judizial zabaldu dira partzialki 1985-etik.

PSOE-k diputatu kongresuan laugarren lege bat betetzea proposatu du, hau da, abortoa alde egitea arazo pertsonal familiar edota soziala dituzten pertsonekin.

Bestalde IU-k eta BNG-k abortu askea eskatzen dute hamalau edo hamasei astetako epe batean.

Abortoaren arazoak gero eta gehiago eragiten du gure gizartean, aurten berrogeitahamar mila emakumerengan. Hala ere, arazo larriena hogeitabat urte baino gutxiagoko gazteetan datza non abortoen %16 adin honen inguruan mugitzen den. Gazteek informazio sexuala dute, hala ere hau ez da nahikoa antisorgailuen erabilpen desegokia bideratuz, ondorioz gogoko ez den haurdunaldi bat etetera bultzatzen ditu.

1987 eta 1994 urte bitartean gazteen haurdunaldi tasa murriztuz joan zen arren, praktika abortiboak hirukoiztu egin ziren. Behin eta berriz arazoa informazio faltan oinarritzen dela azpimarratzen da.

1985 eta 1996 urte bitartean berriz, Espainiar Estatuan 391.670 abortu legal burutu ziren, datu ofizialen arabera. Lehen urtean bederatzi izan ziren arren iada 1996an 51.002 izan ziren.

Bestalde, ilegalki burutzen diren abortuak ehun milakoak dira klinika espezializatuen hitzetan.

Abortuaren inguruan hainbat eztabaida sortu da beti, hauek larriagotu dira kontrako oposizioan dauden alderdiak lege zabalketa eskatu dutenetik kongresuan. Manifestaldi ugari ikusi izan dira azken egunetan hainbat hiritan.

Abortoaren aldekoek ekintza hau emakumearen eskubidea izatearekin justifikatzen dute. Kontrakoek berriz bizi bat etetea oinarritzen dituzte beraien ideiak.

Mugimendu sozial honek kongresuari nolabaiteko presioa ezarri nahi izan dio azken batean hogeitabat urte eskuetan bait dago emakumeari azken hitza ematearen erabakia.



ITXAROPENA

**TABERNA
SORALUZE**

Etxaburueta, 4 - Telefona 75 23 30



MEDIKU OTORRINOLARINGOLOGOA

Dr. Igartua

- * EZTARRIA
- * SUDURRA
- * ENTZUMENA
- * BERTIGOAK

Partikularrak gain, aseguru konpainia guztietako bezeroak atenditzen ditugu.

Barrenkale 35 - 1. - ezkerre
Tel. 943 767091
BERGARA

Abortoari buruz, zer pentsatzen duzu?



Aitor Rodriguez

30 urte

Sendagile alter-
natiboa

Abortoari buruz hitz egitean, pertsona izan behar den "izaki" baten bizitzari buruz ari gara. Arazo ekonomikoa nahiko arrazoi da? kasu bakoitza ezberdina da, emakune batzu behar hori izan dezakete, baina ni orokorrean ez nago horrekin ados.



Andima Laskurain

24 urte

Ikaslea

Abortatzea libre izan beharko zala uste dot. Arrazoierebat baldin badaukazu aurrik ez eukitzeko, hobe da ez eukitzia, ganora barik eukitzia baino.



Nerea Isasti

24 urte

Kazetaria

Nik uste dot puntu hori aprobau ein biharko zala, aurreko botazioan baietza esan zebenek orain ezetz esan dabe "P.P."aren eraginagaitxik. Bestalde, uste dot erabaki hau emakume bakoitzarena dala. Gainera, esan bihar da, emakumeek berdin abortatzen dabe bestela, ilegalki eta kondiziño txarretan.



Maite Etxeberria

36urte

Irakaslea

Nik uste dot 4.puntu hori onartu biharra zauala. Emakume bakoitzak bere eskubidea daukalako erabakitzeko umea euki nahi daben edo ez. Ez da beste inor egon bihar legia ezartzeko eta norberak zer ein bihar daben esateko.



Pili Paino

38 urte

Etxekoandrea

Pertsona bakoitzak, emakume bakoitzak nahi duena egin behar du. Zein da epaile bat edo ministro bat hori erabakitzeko? Hori emakumearen arazoa da. Nik ez nuke abortatuko, baina bakoitzak bere arazoak ditu eta oso ondo iruditzen zait lege hori aurrera eramatea, norberak bere gorputzarekin nahi duena egiten du.



MªJose Gonzalo

39 urte

Etxekoandrea

Bizitza ez dago bat ere erraza eta norberak bere erabakiak hartu behar ditu. Nik ez nuke abortatuko momentu honetan, baina ez da berdina 15 urte edo 40 edukitzea. Kasu bakoitza ezberdina da, norberak gorputzarekin nahi duena egiten du.

ARMENDIA JATETXEA

sukaldaritza tradizionala

**Bataioak, jaunartzeak
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK**

Ezozia Auzoa 11

Tfnoa: 75 10 02

SORALUZE

Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa
fundación*

Txikiteoa (I)

Artikulu honen bidez gure herrian oso sustraiturik eta ezaguna den ohitura baten nondik-norakoak eta egungo egoera aztertuta nahi dugu. Txikiteoa hain zuzen.

Txikiteoa orain 100 urte inguru sorturiko ohitura da, industrializazio aroan. Garai honetan (XIX. mende bukaeran) Euskal Herrian industriaren gorakada nabarmena izan zen, betiko eskulangintza tailer txikietatik produkzio haundiko lantegietara pasatzean. Eta noski, honelako fenomeno baten gizaratean izugarriko eragina duenez orduko bizimoldea eta ohiturak sakonki aldatu ziren.

Lehen jendea ez zen tabernaz - taberna ibiltzen, sagardotegi eta bodegetan pasatzen zuen bere denbora hizketan, jokoan ...eta noski baita edaten. Baina bada gauza interesgarri bat orain 100 urteko gai honen inguruan; sagardotegi ta antzerako horietan izaten zen jendearen gehiengoa ez

zela kaletarra, hau da, gehiengoa baserritarrak ziren kalera tratura edo erosketak egitera jeitsiak.

Lehen a ipatu bezala hau dena

Hauek bihurtu ziren denbora ezkasean gizaratearen gehiengoa eta beraien bizikera ordurarte-koaren erabat ezberdina zen.

Beraien aurretik zeuden langileak ez zuten ordutegi iraunkor bat, lanak ez zeuden ordutegi batek mugatua eta orain ordea hori dena aldatuko da aisialdia edo denbora libre sortuz.

Esandako bi arrazoen (Langileriaren sorrera eta denbora libre edukitzea) konbinazioz sotzen da gaur egun guk txikiteo izenez ezagutzen du-



orain 100 urte inguruko gauza da, baina justu orduan jaso zen gizarate aldaketaren eraginez dena aldatu zen. Industria iristearekin batera ordurarte ez zegoen beste gizarate maila bat agertu zen: langileria.

guna.

Ordutik hona gauzak asko aldatu dira eta batizbat azken urteetan. Baina orain arteko aldaketa hauek eta gaur eguneko egoeraren azterketa urrengoan gingo dugu.

GILA TABERNA

OSO GIRO ONA!!!

SORALUZE

SAN ANDRES

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA

Rabal, 2

Tlf: 751646

SORALUZE

EUSKARA TEKNIKARIA

Soraluzeko Udaletxeak iraliaren hasieratik langile berri bat du. Gazte ordiziar honek Gatzagan , Elgetan eta hemen egiten du lan Euskera eta Kultura dinamizatzailea da eta bere lana hobeto eza-
tuzkeko berarekin egon ginen.

G: Nola duzu izena eta nongoa zara?.

E: Mikel Leunda Sanperena eta ordiziarra naiz.

G.: Eta zein da zure lanpostua?

E: Udaletxeak duen plazaren izena Euskera eta Kultura dinamizatzailea da

G: Nola lortu duzu lanpostu hau?

E: Udaletxean aurten lan eskaintza publikoan atera den Euskera eta Kultura dinamizatzaile plaza dago, egun erdikoa baina Jaurlaritzak udalei dirua ematen dizkie euskera zerbitzuak martxan jartzeko eta Soraluzeko Udalak , Gatzagarekin eta Elgetarekin batera eskaera egin zuen diru laguntza hori jasotzeko eta ni hona etorri naiz hizkuntz normalkuntza teknikari lana betetzera. Aipatutako laguntza horren helburua Administrazio barruko erabilera plana martxan jartzea da. Ni IVAPeko lan poltsa batean nengoan eta IVAPek udaletxeei lan poltsa hori eskani eta gero udalet

xeek lan poltsa horretatik hartu ninduten eta ni horrela urte baterako nago.



G: Beste herrietan ere gauza bera egiten duzu ?

E: Bai .

G: Orduan zure betebeharra Administrazioan erabilpena bultzatzea da?

E: Beno , nere betebeharrak bi dira. Bat Administrazio barruko euskalduntze plangintza bideratzea eta plangintza horren lehen planak 1990tik 1995 arte iraun zuen ,hura mugatu zen langileen hizkuntz gaitasunetara eta orain berriz , 1997 an onartu zen dekretuaren bidez, bigarren plangintza honen helburua da Euskera zerbitzu hizkuntza

izateaz gain lan hizkuntza bihurtzea Udaletxean. Hau da , 2002. uretrarte udaletxeen atal guztiak euskeraz eta erderaz lan egiteko gai izan behar dira

eta gaur egun erderaz egiten den lan hori , euskeraz egitera iristea da helburua. Gero honetaz gain Kultur zinegotziak nahi du herri mailan hizkuntz normalkuntza plana martxan jartzea. Nolabait Soraluzen zentratuta nago herria eta beharrak haundiak direlako ,beste herrien lana arinagoa da eta herri euskaldunagoak dira.

G: Orduan zure lana ez da itzulpenak egitea ?

E: Ez nere lana planaren disenua da eta gero planaren disenua martxan jartzen bada nere lana Euskerako funtzionamenduetan trebatzaile lanak egitea izango da.

“ Soraluzen euskeraren egoera ez da oso ona “

ATXOLIN TABERNA
Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Tlfnoa: 75 21 31
Soraluze



JATETXEA
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

G: Jardun izan duzu lehenago horrelako lan batean?

E: Euskalgintzan esperientzia badut, hemezortzi urterekin hasi eta orain arte eta beti euskera militante sentitu naiz, urte asko eman ditut euskeraren alde lanean.

Profesionalki, gutxiago. Nik lehendabizi 2 urte egin nituen irakaskuntzan euskal filologia ikasi nuelako eta geroztik nere herriko euskera elkarteko teknikaria izan naiz.

Gaur egun euskera elkarteko teknikari eta udaletxeetako teknikarien artean dagoen diferentzia soldata da; elkarte batean gutxiago kobratzen duzu.

Eta gero Egunkarian, Korrikan, nire herriko aldizkarian ere egin nuen lana; orduan esperientzia badaukat baina udaletxe batean lehen aldia da.

G: Nola ikusten duzu Soraluzeke euskeraren osasuna?

E: Errealitate sozio-linguistikoa zentsuak ematen du eta ni etorri baino lehen banekien hemen zentratu euskaldun ziren, horregatik hona etorri naizenean errealitatea espero nuen bezalako aurkitu dut. Nire herriko egoera oso antzerakoa da eta oraintxe ari naiz zentsu datu horiek explotatzen eta nire asmoa da azterketa demo-linguistikoko bat egitea, datuak hobeto jakiteko, zentsuak ematen dituenak oso eskasak direlako, baina nire ustez Soraluzeke euskeraren egoera ez da oso ona.

G: Zergatik uste duzu horrela dela?

E: Batez ere etorkin kopuru handia izan delako Soraluzeke eta 25 -


60 adin tarte horretan euskaldun kopurua txikia delako. Zaharretan eta gaztetan, berriz, haundiagoa. Hau da, zaharren adin tarte horretan euskaldunak galtzen ari gara, hauek hiltzen direlako eta gazteak ba euskaldunak datoz.

Gero erabileran nik somatu dudanez euskera oso kaskarra da, haur eta gazteek erderarako joera handia dute. Hemen zaharrak entzuten ditut euskeraz eta adin tarteko horiek ba oso gutxi.

G: Eta zer egin beharko litzateke?

E: Beno, lehendabizi neurri politiko moduan egin duguna da Euskera azpibatzerde bezala sortu, lehen euskerak eta kulturak batzerde bezala funtzionatzen zuten eta orain autonomi gehiago edukiko du.

Eta gero hor eskolak, komunikabideak, euskaltegiak, foro bihurtzea azpibatzerde hori, baina horre-



tarako agente guzti horien hausnarketa egin behar dut beraien egoera zein den eta zeintzuk diren beraien beharrak ikusteko. Eta erreflexio hori egin eta gero herriari begira hizkuntza normal-kuntza plana disenatzeko asmoa dut.

G: Bukatzeko zerk harritu zaitu gehiago hemen?

E: Herriaren egitura ez zait asko gustatu, industria mailan herri hau

behera doala ikusi dut eta euskalkiaren asko harritu nau. Goierritik datorren batentzat fuertea da baina nik abantaila txiki bat nuen nere amona eibartarra zelako eta belarria eginda nuen.

Galera handia ikusten da zaharren eta gazteen arteko euskeran; euskalduntzen ari diren haurrak edo euskaldunberriak jasotzen duten euskera eta kalean egiten den euskerarekin salto handia dago eta nire ustez eskolan 12 urtera arte hemengo euskalkia irakatsi beharko litzateke batua baino.

Eta horretan aldizkaria leku polita da artikulua hemengo euskalkiarekin egiteko. Nire ustez hemengo eta Bizkaiko jendeak komplejo ikaragarria du baina euskalkia euskeraren altxorrik haundienetarikoa da.

Maite Etxeberria eta E. Pombar//

**TXOKO
KAFETEGIA**

Kafe ederra
hartzeko txokorik
onena!



Kalebarren 22 behea
tinoa: 75-17-89

SORALUZE F.T.: BERRIZ ERE BIDE ONEAN

97-98 denboraldia Soraluze F.T. entzat ikusgarria izan dela esan daiteke. Urte batzuk bere identitatea nahiko galduta izan arren, berriz ere, galdutako identitate hori berreskuratzea lortu du. Denboraldi honi ilusio handiz ekingo dio Soraluze F.T.ak, bere bi talde nagusiek mailaz igotzea lortu eta gero. Lorpen honetan zerikusi handia dauka gaur egungo zuzendaritzak; denboraldi hau beteko duten hirugarrena izango da.

Orain arte, Soraluze F.T.-eko zuzendaritzak egindako lana eta beraien helburuak ezagutzeko asmoz, gaur egun bere presidentea den Julio Rasconengana jo dugu:

1. Nolatan hartu zenuen Soraluze F.T.a zuzentzeko ardura?

Emaitzik gabeko hirugarren asanblea pasa ondoren eta epea gainean zegoela ikusirik, guraso batzuk taldea hartzeko erabakia hartu genuen, Soraluze F.T.a desager ez zedin.


2. Zenbatek osatzen duzue zuzendaritza? Nolakoa da zuen arteko giroa?

12 pertsonak. Normalean denok etortzen gara eta giro oso ona

dago gure artean.

3. Zenbat bazkide ditu Soraluzek? Zer deritsozu?

250 inguru; gutxi direla uste dut, duela urte batzuk 450 bazkide edukitzera heldu ginela kontutan



Julio Rascon, Soraluze F.T.eko presidentea

harturik. Dena dela, kategoria jeitsierak eta motibazio faltak eragindako bazkide galerari aurre egiteko, arlo berrietan lan egiteko asmoa daukagu aurten.

4. Zenbat talde dituzue? Pentsatu al duzue inoiz emakumez osatutako talde bat sortzea?

Lau talde ditugu, erregionala, bi jubenil eta kadetea; infantilak igo izan balira, bost izango ziren. Soraluzek ez du inoiz hainbeste talde izan.

Neskenei dagokionez, lan asko daramala esan behar dut, baina inizatiba egonda eta neskak baldin badatoz, gure aldetik ez zen inolako arazorik izango.

5. Taldeak dituen baliabideak kontutan harturik (ekonomikoa, soziala...), zein mailatan egon beharko litzateke Soraluze?

Bazkide kopuruari begiratuta (50 babesle) dago-kigun mailan gaude.

6. Etxeko jendea ala kanpokoak?

Etxekoa, baina jokatzeko prest ez badaude, kanpoan bilatu beharrean aurkitzen gara. Hala ere, kanpokoak hiru bakarrik dira.

7. Nolakoa da jendearen erantzuna?

Jendearen erantzunarekin oso pozik gaude (rifak, bazkide izatea...). Behin edo behin, jokalariei duten afizioa merezi ez dutela ere esan diegu.

8. Zeintzuk dira zuen helburuak aurtengo denboraldiari begira?

Maila mantentzea eta ahal bada lehen 5en artean sailkatzea da gure helburua. Ilusioa errekuiperatzea gustatuko litzaiguke eta baita instalazioak hobetzea ere (zelaia, sareak, argiak).

9. Betidanik esan da zuzendaritzan sartzen direnak bere semeak barruan daudelako izaten dela. Egia al da hori?

Horrek eragina duela argi dago, baina hobe, Soraluze F.T.an semeak dituzten aita guztiak lanean ariko balira.

10. Zein da Soraluze F.T.an gehien erabiltzen den hizkuntza?

Zuzendaritza osatzen dugun gehienok ez dakigu euskeraz, beraz, erdara gehiago erabiltzen da.

Hala eta guztiz, ahal denean bai euskera eta bai erdera erabiltzen saiatzen gara.

Eskerrak eman herritar guztiei bere laguntza ekonomiko eta moralarengatik.



Soraluze Futbol Taldeko Zuzendaritza

11. Nola ikusten duzu Pil-Pilean bezalako aldirikari bat egotea?

Aldizkaria, ez dut asko ezagutzen baina egia esan, nire arreta bereganatu du.

12. Mezu bat Soraluzeko futbolzale guztiei.

13. Anekdotarik.

Soraluzen egoiteak, lehen ezagutzen ez nituen pertsonak ezagutzeko aukera eman dit, beraiekin harreman oso ona sortuz. Gainera, uste dut, gure artean dagoen giro onak eragina duela taldearengan eta hau oso garrantzitsua da denontzat.



JABIER ALBERDI

HARATEGJA

Errebal kalea 24

Telefono: 75-19-32

Soraluze

EUSKAL OKELA



**CARNE DE VACINO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCO**

EUSKO LABEL



aras S.A.L.

TORLOARREN DEKOLETARIA
AUTZARU ETA METALEZKO PIEZAK
TORLOARREN S/ DIN ARRAK
ZEHATZASUN HANDIKO TORLOARREN

Industrialdea, 20-21
50 47000 Leizor, Gasteiz

Telefonak: (943) 751736 eta 751803
Faxa: (943) 752295
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

AKELARRE TABERNA

Bokatak, pizzak eta kazuelitak

Tifnoa: 753102

SORALUZE

**ARANE
POLIKIROLDEGIA**

943 75 24 66

ARRATE AZKONA: ETORKIZUNA BERE ESKUETAN

Nahiz ta Soralezetar askok ez dakigun, gure artean 97-98 "longitudeko" Euskadiko Txapelduna, 98-an "longitud" eta "triple saltoko" Gipuzkoako Txapelduna eta Komunitateartekoen Txapelduna izan den neska gazte bat dago.



Arrate Azkona

1.Nola hasi zinen?

Alde batetik, beti izan dut atletismoa gustuko eta Soraluze ez dago talderik; bestetik, nere lagun

on bat Eibarko gimnasia taldean zebilen eta honek animaturik hara joan nintzen.

2.Non entrenatzen duzu?

Eibarren, Unbeko instalaziotan.

3.Zeintzuk dira zure entrenatzaileak?

Inma Urkiola eta Belen.

4.Zein modalitate praktikatzen duzu?

Gehien bat, "longitud", "triple salto" eta altuera, baina baita 150 metro hesiak ere.

5.Maila honetan erreza al da ikasketak eta kirola elkartzea?

Nire ustez bai, nahiz eta azterketa egunetan liburuei atentzio gehiago jarri behar zaien; normalean, azterketa garaian entrenamenduak gutxitzen ditugu.

6.Etorkizunean atletismoan aritzea gustuko litzaizuke?

Bai, kirolari bezala ezin bada, kirolarekin zerikusia duen zerbaitetan.

7.Maila honetan ba al dago laguntza ekonomikorik?

Oraingoz ez.

8.Elikadura zaintzen al duzu?

Ez, denetarik jaten dut.

9.Praktikatzen al duzu beste kirolen bat?

Lehen futbitoa, orain ez.

10.Anekdotarik.

Salto bakoitza egiteko denbora zehatz bat dugu eta gogoan dut, altuerako final batean markarik onena izanda, urduri jarri nintzela eta saltoa denbora barnean ezin izan nuela egin. Ondorioz, bigarren gelditu nintzen.

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia eta bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak - SORALUZE

Telefona: 752375



Erregegi

Jatetxea

EZOZIA

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE



SORALUZeko MUSIKA ESKOLAK 10 URTE BETETZEN DITU



Orain dela 10 urte amets bakar bat zirudiena, gaur egun benetako proiektu finko eta serio bat da guraso eta musika irakasle batzuei ezker.

Esaten dugun bezala, urte honetan Soralezeko Musika Eskolak bere 10. urtebetetzea ospatzen du, horregaitik, zuzendaria den Luredesen gana jo dugu nola funtzionatzen duen ezagutzeko.

Nola sortu zen Soralezeko Musika Eskola?


Egia esan, zehazki nik ere ez dakit, lehenengo pausoak eman zirenean ez bainengoen hemen, baina jakin dudanez, guraso elkarte baten eragina izan zen. Guraso hauek, Itziar Burunza, Inés Mari eta momentu hartan udaltxeko zinegotzia zen Atxitorekin batera, zabaldu zuten Soralezeko Musika Eskolaren bidea. Geroago, nere-kin harremanetan jarri ziren eta hemen gaude...

Zenbat ikasle dituzue kurtso honetan?

Azkenengo urte hauetan ehun eta berrogeitahamar bat eduki izan ditugu.

Zein da jendeak gehien ikasi nahi duen instrumentua?

Hasiera batean hiru instrumentu bakarrekin hasi ginen, soinua, kitarra eta txirula, eta momentu hartan, agian soinua zen arrakasta haundiena zeukana. Orain aldiz, dena aldatu da. Guk ere eskaintza zabaldu dugu eta, modan dagoelako edo, trikitixa izan daiteke jendeak gogokoen duena.



Eta irakasten duzuen instrumenturik arraro edota bitxiena?

Bitxiena agian elikoia, txarangetan musikoren gorputzan sartuta ikus daiteken instrumentu haundi hori, gehien bat bere itxura boluminoso eta arrarorengaitik.

Musikari on bat izaten ikasten da edo pertsonaren birtute bat da?

Nere uztez, ez bata eta ez bestea. Pertsona batek musikarekiko erreztasuna eduki dezake, baina halere, Musika Eskola baten oso gauza garrantzitsuak ikasi daitezke berezko kualitateak aberas-teko.

Zein da urte baten zehar, Soralezeko Musika Eskolaren egitaraua?

Alde batetik, urtero hiru kontzertu finko dauzkagu programatuta, Abenduan, Aste Santu inguruan eta Maiatzaren bukaeran gutxi gora behera. Finkoak ere Santa Zezilia eta Santa Agedaren kalejirak izaten dira, eta azkenengo bi urtetan, jaixetako danborradan musika jarri dugu.

Bestalde, herritik kanpo, Euskal Herriko Musika Eskolen jaialdia izan daiteke, Ekitaldin, ere parte hartu dugu. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak antolatzen dituen kontzertu didaktikoetan ere hiru aldiz izan gara.

hiru aldiz izan gara.

Hamargarren urteurrenerako emaldi bereziren bat egitea pentsatu duzue?

Beno, pentsatuta ez dago ezer oraindik, halako gauzak ondo prestatzeko lan talde bat behar delako, baina segurasko ekitaldiren bat egingo dugu.

“Musika Eskolako bandak gure egoera erreflejatzen du”

Nolako maila ikusten duzue zuen ikasleen artean?

Normala denez, denetarik dago, baina bai, ba daude batzuk bikain erabiltzen dutena instrumentua. Gero ere, talde bezala, Musika Eskolaren banda gure egoera nolakoa izan den ondoen erreflejatzen duen ispilua da. Harritzekoa da hamahiru, hamalau urteko umeek egiten duten lana.

Ba dago musika kontuetan aritzeko adin egokirik?

Nik uzte dut ezetz. Adin guztietako ikasleak dauzkagu, lau urtetatik gora hirurogei urtetaraino. Agian, adin a baino momentua izan daiteke egokiagoa, hau da, norberak bere buruan musikarekiko kuriositatea sentitzen duenean orduan izan daiteke musika kontuetan aritzeko momentu egokiena.

Zein da momentu honetan Musika Eskolak behar duen gauzarik garrantzitsuenak?

Dudarik gabe lokala. Nahiz eta gustora egon hemen ikastolan, hau ez da oso egokia Musika Eskola batentzako. Alde batetik ordutegi bat errespetatu behar dugu klasea k bukatu arte, bestetik, egunero ibili behar dugu instrumentuekin gora eta behera eta entsaio orokor bat dagoenean adibidez, leku arazoak edukitzen ditugu.



BETIKO KANTAK

“Bagare”

*Araban bagare
Gipuzkoan bagera
Ziberun bagire
ta Bizkaian bagara,
baita ere Lapurdi ta Nafarran.*

*Guztiok gara euskaldun
guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.*

*Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondartzen.
Bagare, bagera,
bagire, bagara
euskera askatzeko
oraintxe dugu aukera.
Euskadi askatzeko
orintxe dugu aukera.*

*Hitzak: Bitoriano Gandiaga
Interpretazioa: G. Mendibil/Xeberri*

Azken orduko kontuak

Bere aurreko proiektua bukatutzat eman eta gero, “Deabruak Teilatuetan” taldeko partaidetariko batzuk bide berri bat zabaldu dute “Bide-ertzean” deituriko talde osatuz. Beraien lehenengo diskaren aurrerapena kallean dago jada sentsibilitate kutsu txiki batekin.

Taldearen estreineko diska, herriko “Soraluzeko Hotsak”ek grabatu du. Horregaitik laister lan berri hau zuzenean entzun ahal izatea espero dugu gure herrian.

PLAENTXIAKO BERBAK

- ***HOZKIRRIA:** Hotzikara. Hotz sentsazioarekin batera gertatzen den ikara.
Adb. - "Uretatik irtetzerakuan halako **hozkirrixa** sentidu neban"
- ***IDOLA:** Eurite, zaparrada handia.
Adb. - "Demaseko **idolak** euki douz aurtengo udan"
- ***IPURLOKA:** Prakerre, ipurterre, geldirik egon ezin dena.
Adb. - "Gelditxuko haiz behingoz geldik egon ezindako **ipurlokiori!**"

ESAMOLDIAK

- ***HARI HARIAN:** T(Z)EKO ZORIAN
Adb. - "Hari harian egon zian, baina azkenian bizi horraitxiokan!"
- ***HURRE EMAN:** Gutxigorabehera
Adb. - "Soraluze **HURRE EMANDA** 4000 mila herritar eukiko ditxu"

PINTURAK • MARMOLIZATUAK • GREKOAK
ZORUEN ETA HORMEN ERREBESTIMIENTUAK

INGOS. ARRUABARRENA ANAIK

Telefonoak: (943) 75 18 14
75 18 15

SORALUZE (Gipuzkoa)

Arandela Pulituen Fabrika
Standard Tipoa, Din eta Zeta
Aranak, eredu edo planoen
araberako Estanpazio Lanak

 **estampaciones LAGA, S/a.**

Industrialdea
Telef. (943) 75 23 50 - 75 19 85
Telefaxa (943) 75 17 02

41 posta kutxatila
20590 - SORALUZE
(Gipuzkoa)

YON IÑARRA
HARATEGIA ETA URDAITEGIA

KALEBARREN, z/g Tfnoa. 751249
SORALUZE

LAKUESTA OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTAK

IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK

ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU
KARRETEAK SALGAI

SANTA ANA 22C
Tel. 943 753059

20590 SORALUZE
(GIPUZKOA)

ZENBAT TXANPIÑOI DAUDE
ONDDOEN ARTEAN?



Bidali segiduan erantzuna eta zure gustuko musika entzun dezazun "KD" bat oparituko dizugu!!

Zure izena eta telefonoa.....
Erantzuna ?

Iturgintza ITUR

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa Ana 20

SORALUZE

Tlf: 751241



**HNOS. BENITO
ANAIK**

MUEBLES-ALTZARIAK

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)




SEI PLAZENTZIATAR KANARIASETAN

Ez dira oporretara joan, txistua jo eta dantza egitera, baizik “Gaztelupeko Hotsak” eta Rogelio Botanz musikariak, euskal-saharauriar-kanariar jai bat montatu zuten Afrika ondoko Tenerife ir-
lan eta hantxe izan ziren gure lagunak gonbidatu bezala hemengo musika eta dantzak erakusten. Bi ekitaldi eskaini zituzten Rogelio Botanz, Tapia eta Leturia, Ruper Ordorika eta talde saharauri batekin eta kontatu digutenez, sekulako giro polita sortu zen. Elkartruke kulturala izan zen huraxe. Poz-pezik ibili ei ziren paraje haietan eta batez ere bertako jendeak oso harrera ona egin ziela aitatu zuten.

ISTRIPU UGARI AZKEN HILABETEETAN

Azken hilabete honek istripu asko ekarri dizkigu herrira. Guztioak gogoratuko dugun moduan, gogorrena irailaren 12an izan zen. Orduan, Baltegieta kaleko etxe berrietara gasa sartzen ari zirela, leherketa izan eta ondorioz, lau pertsona zauritu egin ziren. Alexander Galarraga, 22 urteko gaztea hil egin zen egunetara, jasan zituen zaurien





BERTSO AFARIA TXURRUKAN

Urriaren 2-an, Ostiralean, bertso afaria izan zen Txurruka jatetxean Pil-Pilean Kultur Elkarteak antolatuta. Ohiane Enbeita eta Aitor Mendiluze bertsolariek Prietoren "agindutara" jardun zuten lanean eta saio polita atera zen. Bertsoez aparte ere izan zen zerekin gozatu, "Mendotz" eta "Bizkai"-ren trikitixa doinu alaiek eta kontatu ziren txiste ugariak, gaur egunean gutxitan lortzen den giro berezi eta humoretsu hori sortu zuten. Antolatzaileen helburua nahi baino hobeto gauzatu zen eta bertaratu zirenek ere afari eder eta "espeziala" bizi izan zuten. **BERAZ DANAK POZIK !!**

PIRINEOTARA BIDAIA (S.K.B.)

Ostiral gauean herritik atera eta larunbat goizean iritsi ziren autobusez Formigal ingurura. Handik "Curavillas" mendira igo eta arratsalde partean, berriz autobusa hartuta Sallén de Gallego-ko guardaetxera joan ziren. Ekipaia utzi eta dutxa on bat eta gero, herria ezagutu eta afari eder bat egin zuten guardaetxean bertan. Gauen, gehienek oherako bidea hartu zuten, baina tartean izan beti bezala bidean galdu eta hurrengo goizerarte agertu ez zenik ere ("Fiesta Cubana"). Igande goizean, gosalduta eta aurreko gauean oheratu zirenek behinpein, mendirako bidea hartu zuten. Peña Telera mendia igo eta eguna mendian igaro ondoren Soraluze bueltatu ziren.



ANE LARREATEGI TRIKITIXAREN GAILURREAN.

7 urterekin hasi zen panderoa jotzen eta geroztik panderojole zain soinu-jole dugu Ane. Aurtengo azken bi txapelketetan Ane Larreategik soina jodu Aitziber Otegi panderojole Besaindarrarekin, Donostiako txapelketan (16 urtetik berakoentzat) 5 geratu ziren eta Zarauzko txapelketan (15 urtekoentzat) bederatzi bikotetik lehenengo postuan geratu ziren. Zorionak!

ALAITZ TABERNA

**EZOZI ETORBIDEA
TFNOA. 75 11 90
SORALUZE**


ETXEBARRI®

Barra kargadore automatikoak
Tuerka rosakatzailak
Ranuratzailak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefona (943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)



GRETELUPE
TABERNA

Telefonoa: 752081

“Uralde”, artista plazentziatar bat

Soraluzen jaioa orain 44 urte, Tere Guenetxea Sebal, “Uralde” - k bost urte daroiaz keramista moduan lanean. Debako Arte Eskolan hiru urteko ikasketak egin ostean, Plazentzian tailer propioa eratu zuen. Sagar Errekan dauka lokala eta bertan erakusgarri dauzka bere lanak edonorentzat. Guk keramika mundu hau asko ezagutzen ez dugula eta, plazentziar honekin barriketan izan gara:

Zer motatako lanak egiten dituzu keramikarekin?

Ba alde batetik, irudimenak esan ahala egiten dut lan. Eskultura abstraktoagoak lantzen ditut eta normalean haundiagoak. Bestetik, saltzeko diren lan komertzialagoak. Azken hauek txikiagoak izaten dira eta beti figuratiboak. Eta azkenik, enkarguak ere egiten ditut.

Zer enkargatzen dio jendeak keramista bati?

Trofeo asko, adibidez. Bezero onenak Bergarako kolektibo kulturak dira, Pol-Pol Argazkilari Elkarte, adibidez. Ezkon -tzetarako enkargu asko jasotzen ditut. Eta baita kanposanturako edergarriak egiteko ere.

“Uralde” ezizena erabiltzen duzu sinatzeko, nondik dator?

Ni jaio nintzenen, urriaren 15ean, Plazentzian izan diren ufalik haundienak izan ziren. Aitxitzak Uralde izena ipini nahi zidan, baina orduan posible ez zenez, Teresa jarri zidaten Santa Teresa baitzen.

Dena dela, beti sinatu izan dut “Uralde”, eta tailerra ere “Uralde” da.

Erraza al da keramista izatea?

Lehenik eta behin, badago teknika batzuk ikasi beharra. Gero, keramista izateko laba bat daukan tailerra behar da eta hori ezin da etxeko edozein gelatan montatu. Gainera, oso zaila da keramista izateko bizitzea. Gutxi saltzen da.

Dena den, ni oso pozik nago daukadan lanarekin. Ekonomikoki merezi ez izan arren, oso aberasgarria da pertsonalki.



Terek egiten dituen lanetariko batzuk.

Plazentziako arte mundu horren egoera nolakoa da?

Egia esan ez dago behar den guztia, baina esperientzia politak daude, Gabolatze margo-eskola adibidez.

Batez ere, hutsuneak ikusten dira herri mailan dagoen udal tailerren ezarengaitik. Horrela ia ezinezkoa da eskola sortzea eta jendeari arte hauen ikasketa erraztea.

Eta herrian saltzeko orduan?

Poliki-poliki jendea eta baita Udaletxea ere, artelanak oparitzeko ohitura hartzen ari dira.

Iazko Gaztañerre Azokan eman ziren sariak, adibidez, artisau mailakoak izan ziren. Garrantzitsua da jendeak eskulanei daukaten balorea ematea.

Azken finean, artelan hauek irtenbide komertziala izan dezaten beharrezkoa da instituzioek eta jendeak artelanak erostea. Gainera, esan beharra daukat, nik egiten ditudan eskulan guztiak originalak eta eskusiboak direla, nik ez dut moldeekin lan egiten; eta hau ere baloratu egin behar da.

Aurkezten zara keramikan egiten diren lehiaketetara?

Bai, baina oso zaila da irabaztea. Izan ere, nazioarte mailako lehiaketak egiten dira eta sari bakarra egoten da. Eta noski, mundu guztiko oso maila altuko jendea aurkezten da horrelakoetara.

Dena dela, iazko Zarautzen egin zen lehiaketa batean, ikuslego eta epaileen


aipamen berezia jaso nuen Lizardiren omenez eginiko eskultura batengaitik.

Zer esango zenioke jaioberri den artista bati?

Gustuko duen arte hori ikastera animatuko nuke. Beti aurrera jarraitu behar da, azkenean beti agertzen da zerbait.

Ezagutu dugu bada zerbait mundu honi buruz, baina gehiago jakin nahi badu norbaitek, Terek zabalik dauzka bere tailerreko atea. Arratsaldean egiten du lan Sagar Errekako 1. atarian, beraz, berarekin hitzegin eta tailerreko lorategian dauzkan eskulturak pozik erakutsiko dituela jakinarazi zigun. Noski, jakinda urriaren 15ean bere eguna izan dela, ezin gara agurtu Tere zoriendu gabe.

BITXIKERIAK



Irailaren 28an, Jose Larrañagak ia hiru kilo pisatzen zituen txanpinoia topatu zuen Arrona inguruko mendietan paseoan zebilela. Txanpinoi erraldoi honek 37 zentrimetotako altuera zeukan. Ezohiko tamaina eukaten beste perretxiko mota batzuk ere topatu omen zituen. Itxura denez, azkenaldian eginiko eguraldiaren ondorioz, euskal mendietan normalean baino haundiagoak diren perretxikoak agertu dira.

Badakizue orduan, tortila eder bat jatea nahi duenak, igandean motxila haundi bat hartu eta mendira joan, baina badaezpada ere eraman aizkora...

Iñaki Cerrejon

- Non ikasi duzu?


Lehenengo urte eta erdiko kursilo bat egin nuen Elgoibarreko IMH eskolan, ondoren Donostian beste urte eta erdi eman nituen lanean eta Durangon beste denboraldi bat lanean egin ondoren, gaur egun Ezozi jatetxean lan egiten dut.

- Zein da zure espezialitatea?

Ez daukat espezialitate berezirik, denetarik egitea gustatzen zait, batez ere platu bereziak.

- Nolatan sartu zinen lanbide honetan?

Gustokoa dut, txikitatik lagundu izan diot amonari sukaldean, hortik datorkit sukaldaritzarako afizioa.



Hemen gure Iñaki sukaldaria

PORRU ETA GANBA PASTELA

Osagaiak (lau pertsonentzat):

Dozena bat porru eder, 150 gr ganba, 3 arraultza, 1/4 litro esnegai, gatza eta pipermin zuria. **Saltsa egiteko:** kipula bat, 2 azenario, porru bat, ganben oskolak, arrain salda, piper berde eta edalontzi erdi olio.

Elaborazioa:

Alde batetik, porruak ahalik eta berde gutxienarekin garbitu eta egosiko dira bigundu arte. Beste aldetik, ganba gordinak zurituko dira oskolak gordez.

Ontzi batean, arraultza gorringoak eta esnegai likidoa nahastuko dira. Honi arraultza zuringoak elur puntuan gehitu eta azkenik pipermina eta gatza botatzen zaizkio.

Gurinaz eta ogi xehetuaz igurtzitako molde batean aurretik egindako krema botatzen da, porruak eta ganbak gehituz. Molde hau bainu marian jarriko da labe barruan 175°C-tan krema guztiz egin arte. Pastel moduko hau hotza serbitzatuko da.

Saltsa: Ditugun barazkiak txikitu eta su motelean egosten dira. Ondoren, ganben oskolak eta buruak gehitu eta dena ondo egin arte. Azkenik, irabiagailuan pasatu eta iragazi ondoren krema arin bat lortuko da. krema hau bakoitzak bere pastel zatiari botako dio nahi beste.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
TORNILLERIA ESTAMPADA

ERREKALDE 21

Telef. (943) 751600 eta 751604
Faxa (943) 752461

20590 SORALUZE


(Gipuzkoa)

EDURTZA

 KAFETEGIA
 SORALUZE

Gure umetxoen lehen egunak

Oporrei agur egin eta iritsi da egunerokotasunean murgiltzeko ordua, lanean hastekoa edota lan bila ekitzekoa. Eta nola ez, Soraluzeko txikitxoenei ere iritsi zaie amaren gonapetik irten eta eskolara lehen jauzia emateko garaia. Hau horrela, Soraluzeko haurtzaindegira jo dugu txikitxoekin egiten dutenaren berri izateko eta hauen gurazorik gabeko egonalditxo hauen nondik norakoak ezagutzeko. Haurtzaindegiko irakasle diren Miren Elduaien eta Maite Gorostidi izan dira atak zabaldu eta berain lana ezagutzera eman digutenak./Gurutze



Haurtzaindegian jolasean

Soraluzeko herri ikastetxeko haurtzaindegira 24 ume etortzen dira. Klaseratzea era prosesibo batean ematen da, hasieran 12 hurreko bi txanda eginez, txanda bakoitza ordubetez. Gero haurrak ohitzen joan ahala egun osoan etortzeko aukera izaten dute, hau da goizean 9,15etatik 12,30etara eta arratsaldean 2,30etatik 4,30etara.

“kasu batzutan umeak ez du ikutzerik ere onartzen..”

Haurrak irakasleak ezagutzen, identifikatzen eta egoera berrira ohitzen joaten diren arte pasiloan edo inguruan egoten dira gurasoak. Baina ezagutzen joan ahala bakarrik geratzen dira.

Lehenengo hilabetean denetarik aurki daiteke, badaude oso ondo

pasatzen dutenak, baita negarrez ordubete egoten direnak ere. Era askotako erreakzioak ematen dira beraz umeen artean. Maite eta Mirenek diotenez kasu batzutan umeak ez du ikutzerik ere onartzen, baina hauen arabera denborarekin beraien bigarren amatxo bihurtzen dira eta ez da izaten inolako arazorik.



Hautzaindegira doazenetatik batzuk euskera hutsean aritzen dira, besteak, berriz, erdera hutsean; banaka batzuk bokalak besterik ez dituzte erabiltzen komunikatzeko. Irakasleak adierazi digutenez, kontu handiz ibili beharra dago ikasle erdaldunak euskara ikasi bai, baina errestantan berarekin ikasten dutelako euskaldunak erdera. Dena dela urtak aurrera egin ahala lortzen da euskeraz aritzea.

Hau horrela, urtean zehar eramaten duten programazioaren nondik norakoak galdetu dizkiegunean zera adierazi digute:

“egiten ditugun ekintzak gehienbat umea sozializatzerara eta hizkuntza lantzerara bideratzen ditugu adibidez ipuinen bidez gauzak konpartitzen irakatsi etab.”

“pazientzia handi handia behar da, baina hurrengandik jasotzen dugun goxotasunak satisfakzio handia suposatzen du”

Maite eta Mirenen iritziz lana berez oso gogorra da, dedikazio osoa

behar da, absorbentea eta pazientzia handi handi handikoa, baina azkenean umeengandik jasotzen den goxotasunak eta markaturiko helburuak nola betetzen doazen ikusteak satisfakzio handia ematen du.

Anekdotarik edo gertatu zaien galdetu eta zera esan dute irrifarre eginez, neskatila bat lehenengo orduan klasera sartu eta zera ohiukatu zuela behin “Mutikos ya estoy aquí..”.

Kontulan Aholkularitza, S.L.

Asesoría Empresarial

Santa Ana, 13 - 1. Ezk.
Tel. (943) 75 17 82

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)

**BATZOKI
TABERNA**

Kalebarren 26

Tlf: 75-12-12

SORALUZE

PAGOBEBEINKATUKO MELKIADES AZTIAREN HOROSKOPOA



ARIES:

Osasuna: Eztarria siku daukazula, zenbat Farias jausi ziren atzo?

Dirua: Sartu itzazu mila pezetakoak tiestoan eta hemendik 9 hilabetetara begiratu ea Eurorik hazi zaizun.

Maitasuna: Askotan aldatzeak, benetan, ez du merezi!



TAURUS:

Osasuna: Jaso animo hori! Ilea mozteak ez du osasuna galtzea esan nahi. Begiratu bestela "Garbi Jauna"-ri.

Dirua: Fresa fruta bat dela soilik pentsatzen duenak, ezin lanik inon to-

patu. Eskatu amatxori.

Maitasuna: Noski nahi duela... Baina nola esango dizu hain garbi ba. Bestela errezegia dela pentsatuko duzu.



GEMINI:

Osasuna: Kristoren osasun ona izango duzu Gabonak arte, behintzat turroiak koperatibara heldu arte.

Dirua: Daukazun apurra dentistan gastatuko duzu (gogoratu lehengo turroia).

Maitasuna: Turroia bezain goxoa den laguna topatuko duzu eta oso eztiki musukatuko zaitu... Esnatu! Bip, Bip, Bip!!!! (Goizeko zazpirak, despertadorea).



CANCER:

Osasuna: Lo gehiago egin behar dek motel. Aste barruan eginbeharrak direla eta asteburuan egin ez beharrekook, Morfeoz paso ala?

Dirua: Itxulapikoan egunero hogeiduroko bat sartzen baduzu Gabon Zahar egunerako 7500 pezeta izango dituzu.

Maitasuna: Gehiegi maite hau, txo! Baina zer demontre, ez al duzu merezi ala?



LEO:

Osasuna: Ur gehiago edan behar duzu. Dendan erositakoa edo txorrokoa, edo hoiien faltan zabaldu ahoa eta irten balkoira, goitik nahikoa erortzen ari da egunotan eta!

Dirua: Arranopola, oraindik ez daukazula "Sakel Txartel Elektroniko"-rik, mugitu ipurdi hori!

Maitasuna: Segi horrela eta munduko konbentu edo seminario guztietatik deituko dizute monja edo abadetara sar zaitezten.



VIRGO:

Osasuna: Bizikletan ibiltzeak on egin dizu udan, baina ez al zara konturatzen EPO-a ilegala dela?

Dirua: Ez zabilta diruz eskas. Lu-rean kartera bat topatu ezker, zabaldu eta datorren urteko egutegia daukan bakarrik begiratu, eh?

Maitasuna: Hau ez dek giro! Maitaleak gainetik ezin kenduta zabilta, zer ematen diezu?



ERA GUZTETAKO INSTALAZIO ETA
KONPONKETAK, ETXETAKOAK ZEIN
INDUSTRIALAK. AITEZAIN AUTOMATIKOAK.
BERO AKUMULAGAILUAK GAU
TARIFARAKO.

GANIXEGI

ELEKTRIZITATEA



LIBRA:

Osasuna: Pisua zaindu behar duzu, beraz badakizu, har ezazu pisua eta gorde ezazu pisua armairurik ezkutue-
nean, han salbu egongo da.

Dirua: Zuk ez duzu, Olanok bezala, mundialik irabazi, baina hala ere

kontu korronte mundiala daukazu.

Maitasuna: Urrezko 2 baldintzak betetzeko, hau da, *seguridad sozial* eta bankuko kartila onak edukitze-
zako, bat falta. Zuk jakingo duzu.



ESKORPIO:

Osasuna: Koka Kola asko edan, horrela barrena sikatzeko. Bestela herri guztia kaka zirinez utziko diguzu.

Zaindu pirriler hori!

Dirua: 53 pezeta bi litrotako Koka

Kola botila bakoitzak, bider, 200 botila... Ez zaizu askorik geldituko!

Maitasuna: Iragarkian funtzionatzen badu, zurekin zergatik ez? Irten zaitez hamaikak puntu puntuan lei-
hora, ikusiko duzu zer arrakasta!



SAGITARIUS:

Osasuna: Bizkarreko minak dituzu, ezta? Postura hobetu behar duzu ohean, lo egitean (badaezpada).

Dirua: Murphyren teoria: Gauzak gaizki badoaz, lasai, okerrago joan

daitezke.

Maitasuna: Agian zure bizkarreko minen erruduna zure bikotea da eta postura aldatu behar duena ere bai.



CAPRICORNIUS:

Osasuna: Itxura denez orain karbohidratoak jatea ona da mehetzeko, esker-
rak eh?

Dirua: Kangoo berria erosi zenuenetik negozioa besterik ez duzu buruan,

zu bai enpresari zuhurra!

Maitasuna: Negozioa buruan eta uharra zak... Noiz-
zean behin atera pasiora.



ACUARIUS:

Osasuna: Perretxiko garaia da, hala ere ez itzazu gehiegi jan, bertan behe-
rako enpatxua harrapatzerik ez ba-
duzu nahi.

Dirua: Beste egunean, hongoak 2500

pta/kiloa zeuden, beraz zeuk atera kontuak.

Maitasuna: Hainbeste jarraitu duzun pertsona azke-
nean lortuko duzu, baina garbitu haginak eta ahoa, perretxiko kirats horrek alden-
duko dizu laguna eta.



PISCIS:

Osasuna: Sofari zure ipurdiaren forma egin zaio. Ojo, horrek ere bere
lana du. Segi horrela kirola egiten!

Dirua: Inbertsioek bere etekina

emango dizute, denbora kontua beste-
rik ez da (erosi bizarra mozteko makinila).

Maitasuna: Zuk bihotza beharrean diamantezko ha-
rri pusketa besterik ez duzu. Bada, inberti ezak/ezan!

HEMEN JOAN DAITEKE ZURE
PUBLIZITATEA.
GURE HELBIDEA
27 POSTAKUTXATILA

JAIOTAKOAK

- Lara Ballesteros Matias (98-05-30)
- Iondar Plata Gomez (98-06-01)
- Nerea San Jose Domingez (98-06-07)
- Xabier Jaunsarats Goenaga (98-06-08)
- Mikel Oregi Cacho (98-06-14)
- Leire Peñalba Rebolledo (98-06-16)
- Oihana Lete Arizaga (98-07-17)
- Enara Iñurrieta Aramendi (98-08-04)
- Jabier Arana Unamuno (98-08-10)
- Ekaitz Garate Aizpuru (98-08-27)
- Ainara Rodriguez Figueredo (98-09-24)

HILDAKOAK

- Jose Migel Oregi Olaizola
- Sergio Zabala Zubiaurre
- Iker Belastegi Martinez
- Consuelo Sesma Jimenez
- Clementina Folgoso Vazquez
- Francisca Larrañaga Ariznabarreta
- Emeteria Galan Martinez
- Alexander Galarraga Ezenarro
- Natalia Olivas Villanueva
- Juan Legaristi
- Angel Aldazabal

Aurreko aleko (10. zenbakia)
lehiaketaren irabazlea.

GERMAN MOYA

izan da



Hauek izan dira ale honetan beraien laguntza eskaini dutenak:

Renault Elkarte Autoak

Iratxo Gozotegia

Miren Ileapaindegia

Erlai Arropa Denda

Marisa Ileapaindegia

Zelia Arropa Denda

Santa Ana Kirolak

Ibai-Ondo Burdindegia

Mendata Taberna

Moises Altuna Harategia

Txurruka-Begoña Urdaitegia

Mari Mar Harategia

ARGAZKI ERAKUSKETA:

* "SANTA ANA XI. ARGAZKI LEHIAKETA" KOAK:

- Tokia: Kiroldegiko erakusketa aretoa.
- Egunak: Urriaren 17 arte.
- Orduategia: Lanegunetan, arratsaldeko 7etatik 8,30 arte.
Larunbatetan, eguadiako 12etatik 1,30 arte.

IRUKURUTZETA-KARAKATEKO ZENTRAL EOLIKOAREN AURKA:

* AKANPADA KARAKATE eta ATXOLIN bitartean: - Urriak 31 larunbata

- Arratsaldeko 5-etatik aurrera
- Igotzeko, arratsaldeko 3etan Azkoitia, Elgoibar eta Sorluzekeko plazetatik.

* IRUKURUTZETA-KARAKATERA MENDI MARTXA: -Azaroak 1 igandea

- Irteera ordua goizeko 9etan Azkoitia, Elgoibar eta Sorluzekeko plazetatik.
- Elkartzea 12etan Karakate eta Atxolin bitarteko zelaian. Bertan salda, hitzaldiak eta bestelakoak izango dira.

GAZTAÑERRE AZOKA:

* NOIZ: Azaroaren 14an

* EGITARAUA: - 9etan, nekazaritza, abeltzaintza eta artisau azoka Errege-Etxean.

- 10etan, ezti lehiaketa.
- Eguerdian, herri kirolak.

PERRETXIKO LEHIAKETA:

* NOIZ: Azaroaren 15ean.

* ARAUAK:

1. 1998ko Azaroaren 15ean, Plaza Zaharrea ospatuko den lehiaketa hau Sorluzekeko Udalak antolatzen du.

2. Perretxiko lehiaketa hau Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendurik dago. **Taldeek, nahitaez, lau pertsonaz osatuak izan beharko dute eta ezingo du inork bakarka parte hartu aipatutako lehiaketan.**


3. Izen-ematea Udaletxean egingo da Azaroaren 6ko eguadiako 2ak baino lehen.
4. Perretxikoak egurrezko edo kartoizko bandejetan aurkeztuko dira goizeko 11etarako Plaza Zaharrean.
5. Epaimahaiak **BARRENGORRI** Elkarte Mikologikoko kideek osatuko dute eta beren erabakiak apelaizienak izango dira.
6. Epaimahaiak, honako arauak izango ditu kontutan puntuatzerakoan:
 - a) Perretxiko ezberdin guztiak puntuatuko dira (errepikatuak ez dira onartuko). Mota ezberdin ugarietak sari berezia izango du.
 - b) Perretxikoak itxura eta egoera onean egon beharko dute (hau da, hartu berriak). Honela ez daudenak puntu beharpena izango dute. Aurkezpen txukunenak sari berezia izango du.
 - d) "Boletus Edulis" sorta onenarentzat ere sari berezia egongo da. Garapen aldi ezberdinak eta freskotasuna hartuko dira kontutan sari berezi hau emateko, aurkeztutako perretxiko kopuruari kasurik egin gabe.
 - e) Laugarren sari berezia lan didaktiko sakonenarentzat izango da, hau da, sailkapen egokiak, izen zientifikoak eta berezitasun nabarmenenak adierazten dituenarentzat. (Udaletxean eska daitezke txartelak)
7. Epaimahaiak onartze eskubidea izango du; horren ondorioz, aurkezpen egoera egokia ez duten perretxikoak bazter ditzake.
8. Erakusketa jendearentzako irekia izango denez, partehartzaileek ezin izango dituzte, eguadiako 2ak arte perretxikoak erretiratu.
9. Epaimahaiak bere erabakia eguadiako 1,30etan emango du ezagutzera eta, ondoren, sari banaketa egingo da.
10. Arautegi honetan jasotzen ez den zerbait gertatuko balitz, antolatzaileek epaimahaiakoekin batera erabakiko lukete.

AMAIA URTIAGA SOPRANOAREN KONTZERTUA:

- * NOIZ: Azaroaren 20an.
- * ORDUA: Gaueko 10etan.
- * NON: Soraluzeke Parrokian.
- * OHARRA: Alfredo Martinez piano jolearekin batera.

EASO ABESBATZAREN ESCOLANIAREN KONTZERTUA:

- * NOIZ: Azaroaren 28an.
- * ORDUA: Arratsaldeko 8etan.
- * NON: Soraluzeke Parrokian.



Jada ez daukazu zure aurrezkiak epe jakin batera lotuta izan beharrik.




Orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak duzu.


Aurrezteko sistema berriak ugaritu egin badira ere, aurreztaileen %50ak nahiago du ohiko Eperako Aurrezkiak, nahiz eta epearen eragozpena izan.

Pertsona horiek orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak dute. Eperako Aurrezkiaren errentagarritasun, segurtasun eta erraztasun berberetara gozaten jarrai dezaten eta, gainera, beren aurrezkiak askatasun osoz eskuratzeko aukera izan dezaten. Ongizate Aurrezkiak. Eperako aurrezkiak bezalakoak, baina eperik gabe.

Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901-333 444 telefonoan.



Erantzun zuzena



ORTO-LAGUN

ORTOPEDIA

- * Faja prebentiboak eta bizkarreko minarentzakoak
- * TXIMELETA buruko zerbikalak
- * Kiroletarako belaunetakoak
- * Atsedenerako neurrizko PLANTILAK, oin erreumatikoak oin lauak eta era guztietako oin minduentzat.
- * Oinetako ortopedikoak.
- * LANERAKO ZUEKOAK.

Kontzezino kalea, 2 behe
Tfnoa 943 79 89 34
ARRASATE (Gipuzkoa)

Soraluzeko aek-k eskerrak eman nahi dizkie talde guzti hauei euskararen aldeko kanpainan emandako laguntzagatik..

PSE-EE, EA, HB, ELA, LAB, MENDI TALDEA, DANTZA TALDEA, SOTA, GAZTETXE, JARRAI, KONTRARGI, PIL PILEAN, S.F.T., ABESBATZA, MUSIKA ESKOLA, GESTORAK, SENIDEAK, EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA, SORALUZKO GESTO POR LA PAZ, SORALUZKO B.H. I. , SORALUZKO H. I., PILOTA TALDEA, EGUZKI, BETI PREST, LUDOTEKA, BIZIKLETA TALDEA, GAZTELUPEKO HOTSAK. Mila esker!!!

*Gu euskararekin...esan zeuk ere
bai euskarari!!!*